

III. Eranskina

Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

Nekazaritzako eraginei buruzko txostena

2024ko abendua



AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	PLANAREN PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA	4
3	NEKAZARITZAKO ERAGINAK EBALUATZEA	7
3.1	Eragindako lurzoruen kategoria	7
3.2	Nekazaritzako ustiategiei eragitea	9
3.3	Ustiategiei lotutako eraikin eta azpiegituren gaineko eragina	14
3.4	Ustiategiaren bideragarritasun ekonomikoaren gaineko eragina	14
4	NEURRI ZUZENTZAILEAK	18
4.1	Lurren gaineko ezagutza sakontzea	18
4.2	Nekazaritza-lurra eta nekazaritza-ustiategiak babestea	18
4.3	Lurzoruen babesa obra fasean	18
4.4	Konpentsazio-neurriak	19
5	NEKAZARITZAREN ARLOKO ERAGINARI BURUZKO ONDORIOAK	20

ERANSKINA: Planoak

1 SARRERA

2014an¹ behin betiko onartu zen Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Arloko Plana (aurrerantzean, LAP). Plan horren helburua da balio handieneko nekazaritza-lurak babesten laguntzea, Euskal Autonomia Erkidegoan lehen sektorea sustatzeko oinarri gisa, *Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legean* ezarritako helburuarekin bat etorritz, nekazaritza-jarduerarekin lotutako nekazaritza-lurzoruaren erabilera jarraitua eta egokia sustatzea, betiere gizartearen eskaerekin bat etorritz.

LAP-k EAE osoa hartzen du antolamendu-eremutat, lehendik dauden hiri-eremuak izan ezik, hau da, dokumentu horren behin betiko onarpenaren datan udal-plangintza orokorrak hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako eremuak. Horrela, lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa ezartzen du, udal-plangintzan jaso beharko dena, eta interes estrategikoa ematen die balio agrologiko handia duten nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoru urbanizaezin eta landazabal gisa sailkatutako eremuei.

Nekazaritza-sektorea nekazaritza- eta basogintza-arlokoak ez diren erabileren aurrean defendatzeko, LAP-k, Nekazaritzaren arloko eraginaren ebaluazio protokoloa (AEEP) ezartzen du *D. Eranskina* dokumentuan, eragindako ustiategi bakoitzaren eta dagokion eremuko nekazaritza-lurzoruaren gaineko lurralde-garapeneko proposamenak ebaluatu ahal izateko, erabakiak hartzerakoan arloko alderdien balorazioa txertatuz.

HAPOn planteatutako hirigintza-hazkundeko proposamenak lehendik dauden nukleoetan oinarritutako hirigintza-hazkunderekin parekatu ahal izango lirateke, aipatutako LAParen erabilera-matrizearen arabera. Hazkunde horiek Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala kategoriako Balio Estrategiko Handia eta Trantsizioko Landa Paisaia azpikategorietan, Mendia kategoriako Baso-Mendi barbana eta Basoa azpikategorietan, edo Ingurumen Hobekuntza gisa kalifikatutako eremuetan kokatzen direnean, erabilera onargarria da (2b), hau da, horiek ezartzeko beharrezkoa da nekazaritza eta basogintzako jardueran sortutako eragina aztertzea eta neurri zuzentzaileak sartzea Nekazaritzako eta Basogintzako Plan Sektorialaren Eranskinean jasotako baldintzetan.

Jarraian, eranskin honetan nekazaritzaren arloko eraginaren ebaluazioa egiten da, aipatutako protokoloa jarraituz. Bertan, aztertu beharreko oinarriak ezartzen dira:

1. Ukitutako lurzoruaren kategoriaren araberako eragina, balio estrategiko handiko azalerak eta onura publikoko mendiak eta mendi babesleak berariaz adierazita.
2. Eragindako ustiategi bideragarritasun ekonomikoa eta ustiategiei lotutako eraikin eta azpiegiturak.
3. Ustiategiei lotutako eraikin eta azpiegituren gaineko eragina.

¹ 177/2014 DEKRETUA, 2014ko irailaren 16koa, zeinak behin betiko onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala

2 PLANAREN PROPOSAMENAREN DESKRIAPENA

Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (aurrerantzean HAPO) indarrean dagoen 2012ko Plan Orokorren berrikuspena da. Orduz geroztik, indarrean sartutako hainbat Hirigintza Legedi eta Araudi Sektorialetara ez da egokitu.

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren jarduera-esparrua Orioko udalerri osoa da, 9,93 km² inguruko azalera duena. Udalerria Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren zati da.

Orio Gipuzkoako Lurralde Historikoaren iparraldearen erdialdean kokatzen den kostaldeko udalerria da. Iparraldean Kantauri itsasoarekin partekatzen ditu mugak; ekialdean Donostia eta Usurbilgo udalerriekin; hegoaldean eta mendebaldean, berriz, Aiako udalerriarekin.

Oro har, Orio eta Aia udalerrien arteko mugak, Oria ibaiaren ibilguak ezartzen ditu, Orio eskuineko ertzean geratzen delarik eta Aia ezkerrekoan. Hala eta guztiz ere, ezkerreko ertzeko lur eremu bat ere Oriko udalerriari dagokio, esaterako, Mutiozabal, Txurruka edo Oribarzar ibai-hondartza eta bokaleko morru berria eta portu-plataforma. Ibaiaren alde horretan kokatzen dira Motondoko padurak ere.

Orioko herrigunea Oria ibaiaren eskuin ertzean zabaldurik kokatzen da. Proposatutako garapen berriei dagokienez, gehienak hiritartutako lurzoruan kokatzen dira egun dauden garapenak ordezkatzuz. Salbuespenak, Aizperro lurzoru urbanizagarriko sektorea eta Erribera kaleko luzapena eremua dira. Lehenengoa herrigunetik urruti kokatzen da AP-8-ko Orio sarrera inguruan landa-eremu batean, non zelaia, belardiak eta erriberako basoak aurki daitezkeen. Bigarrenaren kasuan, lurzoru urbanizaezin izatetik lur hiritar izatera pasako den eremua da Oria itsasadarreko eskuin ertzeko Palotas inguruan, egun baratze eta frutondoak okupatuta dagoena. Aipatzekoa da baita ere, Dike eremua, oro har, eraldatutako lurzorua agertzen baditu ere, azalera batean egun inguruko etxebizitzetarako loturiko baratzak eta fruitondoak agertzen direla.

Orioko udal-mugartearen zati handi bat (udalerriaren %92 baino gehiago) lurzoru urbanizaezintzat sailkatu da. Udalerriaren erdia baino gehiago basogintzara bideratua dago, izan baso autoktonoa edota baso-landaketak.

1. Taula Lurzoruen sailkapenaren bilakaera. HAPO (2012)-HAPO berria (2024).

Sailkapena	HAPO (2012)		HAPO (2024)		Bilakaera (m ²)	
	(ha)	%	(ha)	%	(ha)	%
Hiri-lurzorua	65,95	%6,64	68,55	%6,90	+2,60	+%3,92
Lurzoru urbanizagarria	9,16	%0,92	4,89	% 0,49	-4,27	- %46,74
Hiri-izaerako lurzorua	75,11	%7,56	73,44	%7,40	-1,67	-%2,12
Lurzoru urbanizaezina	917,97	%92,44	919,67	%92,60	+1,70	+%0,17

HAPOk ezarritako antolamendu-ereduak identifikatutako udalerriaren hazkunde-itzaropenei erantzuteko jarduerak planteatzen ditu, maila handiagoko legeriaren eta antolamendu-tresnen

irizpideak eta zehaztapenak betez, besteak beste, natura-ingurunearen babesari eta ingurumen-iraunkortasunari dagokienez.

Ildo horretan, planteatzen du, funtsean, lehendik dagoen hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria betetzea eta dentsifikatzea, 2012. urtean Plan Orokorrearekin konparatuz. Aldatzen den sailkapen bakarra "Erribera kalearen luzapena" eremuarena da, lurzoru urbanizaezin izatetik hiritar lurzoru izatera pasatzen dena. Aizperro eremuaren garapena berriz, indarrean dagoen planeamenduan jasotzen zen, eta HAPO berriak kontsolidatu egiten du proposamena.

Beraz, eremu gehienetan ez litzateke Nekazaritza eta Basogintzaren LAP aplikatuko, aurretik hiri-lurzoru edota lurzoru urbanizagarriak zirelako. Hurrengo atalean azalduko da garapen-eremu bakoitzean LAP-ak ezarritako kategoriak nola banatzen diren.

Bestalde, kontuan izan behar dira lurzoru urbanizaezinean proposatzen diren jarduketak. Hori horrela, lurzoru urbanizaezin moduan sailkatuta dauden bost eremurentzat fitxa urbanistikoak jasotzen ditu HAPOren behin behineko onarpeneko dokumentuak: 18.1. Camping, 18.2. Cementerio, 18.3. San Martín, 18.4. Katxiña eta 18.5. Sarikola.

Eremu urbanistikoa	Sailkapena	Azalera (m ²)
Lurzoru urbanizaezina		
18.1. Camping	Lurzoru urbanizaezina	31.595
18.2. Cementerio	Lurzoru urbanizaezina	7.350
18.3. San Martín	Lurzoru urbanizaezina	11.451
18.4. Katxiña	Lurzoru urbanizaezina	88.366
18.5. Sarikola	Lurzoru urbanizaezina	28.043
Guztira		166.805
GUZTIRA		901.239

- «18.1. Camping» : udalerriaren iparraldean kokatzen da, "10. Hondartza" eremuaren ondoan. Eremuaren azalera 31.595 m²-koa da. Eremu honetarako helburua da kanpina egungo kokalekuan finkatzea, baldintza orokorrekin. Aldi berean, hobetzeko eta egokitzeko beharrezkoak diren jarduketak proiektatzea eta gauzatzea du xede (eremu berdeak eta lorategiak, jolas-parkea, igerilekua, komunak, taberna, beste instalazio eta zerbitzuak, etab.) mota horretako instalazio baten egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzunez eta instalazio horien iraunkortasuna, ingurune baldintzatzaileen errespetua eta dauden natura-balioak babestea eta, hala badagokio, berreskuratzea bermatzeko moduan zehaztuz. Lehen dauden eraikinez gain, eremuari 400 m²t eraikigarritasuna ematen dio planak.
- «18.2. Cementerio»: San Martín auzoan kokatzen da eta eremuaren azalera 7.350 m²-koa da. Eremu hau definitzearen helburuetako bat da hilerria finkatzea eta handitzea, 2.330 m²-ko azaleran. Gainera, aparkaleku berri bat proposatzen da, hilerriaren zerbitzura. Eremuari 300m²t eraikigarritasun berria esleitzen zaio.
- «18.3. San Martín»: San Martín erretegiari loturiko eremua da eta 11.451 m²-ko azalera du. Eremu honetako helburua da San Martín erretegia bere instalazioekin sendotzea, lehendik dagoen etxebizitza osagarria barne.

- «18.4. Katxiña»: Orkaitza auzoan kokatuta dago. Katxiña upeltegiari eta Nekazaritzako ustiategiari lotuta lurra dira. Eremuaren azalera 88.366 m²-koa da. Katxiña nekazaritza-ustiatagia finkatzen da bere eraikin eta instalazioekin, Katxiña upeltegiari dagozkionak barne (1.091 m²t) . Bestalde, Upeltegia handitzeko aukera ematen da (1.567 m²t).
- «18.5. Sarikola»: Eremua Usurbilgo udalerraren mugan kokatzen da eta 28.043 m²-ko azalera du. Helburua da eremuaren hirigintza- eta eraikuntza-araubidea HAPOn irizpide orokorretara egokitzea, eta A, B eta C eraikin babestuak zaintzea eta zaharberritzea. Testuinguru horretan, lehendik dauden eta babestuta dauden eraikin horietan bizitegi-, hirugarren sektoreko eta ekipamendu-erabilerak ezartzea baimentzen da. Zehazki, A eraikina bizitegi-erabilerara bideratuko da, etxebizitza bat ezarriz. B eta C eraikinak, hirugarren sektoreko erabilerak, ekipamendukoak edo baimendutako beste erabilerara parekagarri batzuk izan ditzakete. A eraikinean aurreikusitako bizitegi-erabilerarako eraikigarritasuna C eraikinera lekualdatu ahal izango da, baldin eta bizigarritasunarekin, uholde-arriskuekin edota indarrean dauden beste lege-xedapen batzuetan (kostaldeak, etab.) ezarritako baldintzak betetzearekin lotutako arrazoiek justifikatzen badute.

Horrez gain, lurzoru urbanizaezinean mugikortasunaren arloan definitzen diren jarduketak berriz ondorengo hauek dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena den N-634 errepidearen saihebidetaren proiektua jaso da Plan Orokor berrian. Zubi berri bat egin beharko da Oria ibaiaren gainean, Anibarko Portutik Motondoraino. Saihebidet hori gauzatzeko ondorio onuragarriak izango ditu hiri-bilbearen mugikortasunean, izan ere egungo errepidea kalea izatera pasako da, eta Hirigune Historikoaren zati bat soilik oinezkoentzat jartzea ahalbidetuko du.
- AP-8 autobidearen gainetik oinezkoen pasabide bat eraikitzea, Donejakue bidearen trazadura jarraitua eta zentzuzkoa berreskuratzeko, autobide horren eraikuntzarekin eten edota kaltetu egin baitzen.
- Itsasadarraren bi ertzak lotzeko oinezkoentzako pasabidea, AP-8 autobideko zubitik zintzilik, kirol-portuaren ingurua Txurruka eremuarekin lotuz. Udalerriko oinezkoen sarea eta Donejakue Bidearen trazadura arrazionalizatzeko, itsasadarraren bi ertz horiek inguru horretan lotuz, justifikatuta dago haien proiektzioa eta egikaritzea.

Aipatzekoa da, mugikortasuna hobetzeko proposamen hauen ezaugarriak kontuan hartuta, zubiak eraikitzen diren eremuan lurzoruari ez diotela kalterik egingo, bai ordea hauek lurzorura finkatzeko egingo diren egiturek. Horrez gain, N-634 errepidearen saihebidetaren kasuan, biribilgunea eta zubiaren artean proposatzen den errepide zatiak lurzoru urbanizaezinari eragingo dio.

3 NEKAZARITZAKO ERAGINAK EBALUATZEA

3.1 ERAGINDAKO LURZORUAREN KATEGORIA

Garapen-proposamen bakoitzaren eragina aztertu aurretik, Nekazaritza eta Basogintzaren LAP-ak Orioko udalerrian ezarritako kategorien arabera banaketari buruzko datu batzuk aurreratzea komeni da.

2. Taula Udalerriaren banaketa Nekazaritza eta Basogintzaren LAP-aren kategorien arabera

Kategoria	Azalera (ha)	%
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	58,4	% 5,9
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	244,2	% 24,9
Basoa	327,5	% 33,4
LAP-aren antolamendutik kanpo geratzen diren eremuak	Azalera (ha)	%
Itsaslabarrak eta hondartzak	8,3	% 0,8
Ibaiak eta urtegiak	59,7	% 6,1
EAEko Itsasertzeko LApek antolatutako esparrua	203,1	% 20,7
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak. Udalplan 2013	80,6	% 8,2

Jarraian, garapen-proposamenen eragina azaltzen da, hau da, LAP-aren kategorien arabera inpaktua.

3. Taula Garapen-proposamenen eraginak (m²), Nekazaritza eta Basogintzaren LAP-aren kategorien arabera.

Eremua	Azalera (m ²)	Balio estrategiko altua	Trantsiziozko landa paisaia	Basoa	Hiri lurzorua, urbanizagarria, eta sistema orokorrak	Ibaiak eta urtegiak	Itsaslaba-rrak eta hondartzak	Itsasertze-ko LApek antolatutako esparrua
1.1. Kofradia	794				794			
1.2. Sotoak	298				298			
1.3 Almirante Oa 8	176				176			
2.1. Aita Lertxundi 48-50	4.324				4.324			
2.2. Aita Lertxundi 42	2.797				2.797			
3.1. Eusko Gudari 36-38-40-42	1.961				1.961			
3.2. Kaia kalea 5	1.026				1.026			
3.3. Arrantzale kalea. Solar 1	402				402			
3.4. Arrantzale kalea. Solar 2	222				222			
3.5. Eusko Gudarien kalea, 26	234				234			
4.1. Aita Lertxundi 16	332				332			
6.1. Erribera kalearen luzapena	3.344	3.344						
7.1. Kabi-alay / Uri berri	4.320				4.320			
8.1. Munto P.2	2.076				2.076			
12. Dike	20.169				20.169			
13.1. Arocena Ceramica	9.965				9.965			

Eremua	Azalera (m ²)	Balio estrategiko altua	Trantsizioz-ko landa paisaia	Basoa	Hiri lurzorua, urbanizagarria, eta sistema orokorra	Ibaiak eta urtegiak	Itsaslabarrak eta hondartzak	Itsasertzeko LAPek antolatutako esparrua
14.1. Anibarko-Portua 37	158				158			
17. Aizperro	48.944				48.944			
18.1. Camping	31.595							31.595
18.2. Cementerio	7.350		2.596		4.754			
18.3. San Martin	11.451	1.628	9.823					
18.4. Katxiña	88.366		37.079	51.287				
18.5. Sarikola	28.043	2.973	3.277	9.668				12.125
N-634 errepidearen saihasbidea	5.823	-	1.800	-	-	-	-	4.023
AP-8 pasabidea, Donejakue bidea	*	-	-	-	X*	-	-	-
AP-8-ko zubitik zintzilik oinezkoentzako pasabidea	*	-	X*	-	-	-	-	X
Guztira (m ²)	274.170	7.945	54.575	60.955	102.952	0	0	47.743
%	%100	%2,90	%19,91	%22,23	%37,55	%0	%0	%17,41

*HAPOk ez du zehazten proposamen hauek hartuko duten azalera, ondoren garatutako proiektuetan definituko da. Dena den, jarduketan ezaugarriak kontuan izanda, ez da aurreikusten eragin esanguratsurik izango dutenik nekazaritzako lurretan. AP-8 autobideko zubitik zintzilik proposatzen den pasabideak EAEko Itsasertzeko LAPek antolatutako esparruari eragingo dio. Donejakue bidea jarraituz proposatzen den AP-8-ko pasabideak, errepideen azpiegiturari eragingo dio eta agian pasabidearen egitura sortzeko Trantsiziozko Landa Paisaia moduan sailkatutako azalera txiki bat hartu dezake.

Hurrengo taulan azaltzen dira garapen-proposamenek orokorrean eragindako kategoria bakoitzaren azalerak eta eragindakoak zer suposatzen duen udalerrri osoan kategoria horiek duten azalerarekiko.

4. Taula Eragindako azalerak Nekazaritza eta Basoentzako LAP-aren kategorien arabera

LAP-aren kategoriak	Eragindako azalera (m ²)	Garapen-eremuen azaleraren %	LAP-aren kategoriaren % Orioko udalerrian
Landazabala: balio estrategiko altua	7.945	%2,90	%1,36
Landazabala: trantsiziozko landa paisaia	54.575	%19,91	%2,24
Basoa	60.955	%22,23	%1,86
Guztira	123.475	%45,04	

Aurreko atalean azpimarratu diren alderdiak baieztatu daitezke aurreko taulan azaltzen diren datuetan. Hala, garapen-proposamenak LAP onartu aurretik hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuak ziren lurretan kokatzen dira bereziki, zehazki eragindako azaleraren ia % 40ean kokatzen da horrela sailkatutako eremuetan.

Balio estrategiko altuko lurrei Erribera kalearen luzapena proposamenak (3.344 m²), San Martin eremuak (1.628 m²) eta Sarikolak (2.973 m²) eragiten die. Beraz, LAP-eko kategoria honetan sailkatzen diren udalerriko lurren % 1,36-ri eragiten zaie. Aipatzekoa da errealitatean inpaktua txikiagoa izango

dela, San Martin eremuan ez baita garapen berririk onartzen eta Sarikola egun dauden eraikinak zaharberritzen dira soilik.

Trantzisio landa paisaiari dagokionez, bost eremu edo proposamenek izango dute eragina kategoria honen gain: hilerria, San Martin, Katxiña, Sarikola eta N-634 errepidearen saihebidetako Anibarko Portuko biribilguneetik Motondoraino. Oro har, eragindako azalera 54.575 m²-koa izango da, udalerrian kategoria honetako lurrek hartzen dutenaren % 2,24-a.

Basoa kategoriari dagokionez, Katxiña eta Sarikola eremuan azalera zabal bat eremu honetan kokatzen da, 60.955 m² zehazki, hau da udalerrian kategoria honek hatzen duen azaleraren %1,86.

Oro har, LAP-ren kategorietan eragindako galerak oso mugatuak direla esan daiteke. Kontutan izan behar da, HAPOk proposatutako garapenen artean, kategoria honetako azalerarik handienak lurzoru urbanizaezineko bost eremuek hartzen dituztela, eta hauetan esku hartzea oso mugatua izango dela. Gainera, hauek lurzoru urbanizaezin moduan sailkatuta jarraituko dute kategoria bakoitzari dagokion araudia bete beharko dutelarik bertan proposatzen diren garapen murriztekin.

Bestalde, azpimarratu behar da HAPOk nekazaritza sektorearentzat eta elikagaiak ekoizpenerako estrategikoak diren balio agrologiko handiko lurrak babestu dituela, eremu hauetan nekazaritza erabilera sustatuz eta bestelako erabilerak debekatuz eta mugatuz.

Hala, Oria erriberako ibaiertzeetan eta inguruko muino eta hegal leunetan 49,6 ha kalifikatu dira "Balio estrategiko handia" kategorian, lur ez urbanizagarriaren %5,4 eta landa lurraren % 5,6.

3.2 NEKAZARITZAKO USTATEGIEI ERAGITEA

Jarraian aztertzen dira garapen berriek erabileren gaineko eraginak, SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistema) aplikazioaren erabilera- eta partzela-datuak erabiliz.

5. Taula Orioko HAPOn jasotako proposamen nagusien eragina SIGPAC erabilera-datuen arabera

Garapen eremuak	SIGPAC erabilerak (m ²)											Guztira (m ²)
	AG Ur-ibilguak	TA Lur goldagarria	FY Fruitarbolak	PS Larreak	PR Zuhaixka-larreak	PA Zuhaitz-larreak	VI - Mahasti	FO Basogintza	CA Errepideak	ZU Hiri-lurra	IM Ez-produktiboa	
1.1. Kofradia										794		
1.2. Sotoak										298		
1.3 Almirante Oa 8										176		
2.1. Aita Lertxundi 48-50										4.324		
2.2. Aita Lertxundi 42										2.797		

Garapen eremuak	SIGPAC erabilerak (m ²)											Guztira (m ²)
	AG Ur-ibilguak	TA Lur goldagarria	FY Fruitarbolak	PS Larreak	PR Zuhaixka-larreak	PA Zuhaitz-larreak	VI - Mahasti	FO Basogintza	CA Errepideak	ZU Hiri-lurra	IM Ez-produktiboa	
3.1. Eusko Gudari 36-38-40-42										1.961		
3.2. Kaia kalea 5										1.026		
3.3. Arrantzale kalea. Solar 1										402		
3.4. Arrantzale kalea. Solar 2										222		
3.5. Eusko Gudarien kalea, 26										234		
4.1. Aita Lertxundi 16										332		
6.1. Erribera kalearen luzapena		2.950	64							330		3.344
7.1. Kabi-alay / Uri berri										4.320		
8.1. Munto P.2										2.076		
12.Dike										20.169		
13.1. Arocena Ceramica										9.965		
14.1. Anibarko-Portua 37										158		
17.Aizperro			29	33.748	2.097			11.930	1.083		56	48.944
18.1. Camping					0,11			9,35		1397,73	30.187,93	31.595
18.2. Cementerio				2.806,7					0,3		4.543	7.350
18.3. San Martin			0,01	4.609	912,66	1,2		734	20,2		5.174	11.451
18.4. Katxiña		21,2	5,4	4.668,2	11.295,9	1.746,6	61.727	62,6	16,9		8.821,7	88.366
18.5. Sarikola			0,1					16.900	67		11.075,9	28.043
N-634ren saihesbidea	4.755				802				158		108	5.823
AP-8 pasabidea, Donejakue bidea*									X		X	*
AP-8.ko zubitik oinezkoentzako pasabidea*	X											*
Guztira (m ²)	4.755	2.971	98,51	45.832	15.108	1747,8	61.727	29.636	1.345	50.982	59.966,53	281.518
Eragindako azaleraren %	1,69	1,06	0,03	16,28	5,37	0,62	21,93	10,53	0,48	18,11	21,30	100

*Ez dago eremu hauen azaleraren daturik.

Nekazaritzaren ikuspegitik bi multzotan banatuko ditugu erabilerak: alde batetik, nekazaritzarako inongo baliorik ez duten lurak (hiri-lurra, errepideak eta ez-produktiboa), eta, bestetik nekazaritza-

abeltzaintza-basogintzarako erabiltzen diren lurak (lur goldagarria, fruitarbolak, larreak, zuhaixka-larreak, mahastiak, zuhaitz-larreak, eta basogintza).

HAPOn proposamen nagusien eragina bi erabilera motatan banatzen da batez ere: eragindako % 40 eraldatutako lurzoruak izango lirateke (hiri-lurra, errepideak eta ez-produktiboa, %22 mahastiak eta %16 larreak. Mahastiei dagokienez, Katxiña eremuak bakarrik eragiten die, eta eremu honetan proposatzen dena da txakolindegia jarduerarik jarraitzea, instalazioak zerbait handituz; edonola ez da aurreikusten mahastiei kalterik egitea. Larreen erabilerari dagokionean berriz, zatirik handiena Aizperro eremuan galduko litzateke (33.748 m²). Horrez gain, aipatzekoa da Aizperro eremuak basogintza lurretan eragiten duen galera (11.930 m²), eragindako azalera guztiaren %10 ingurukoa.

6. Taula Orioko HAPOn jasotako proposamen nagusien eragina SIGPAC-eko partzeletako datuen arabera.

Garapen -eremuak	ID SIGPAC lursaila																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																										
	35	24	140	289	292	293	296	297	300	311	323	324	325	327	354	365	366	367	370	464	541	681	606	609	623	787	788	789	829	830	882	889	895	955	994	996	90000	90004	90006	90023	90024	90006	Guztira (m²)																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																
1.1. Kofradia																																														794																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																													
1.2. Sotoak																																															298																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
1.3 Almirante Oa 8																																															176																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
2.1. A.Lertxundi 48-50																																															4.324																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
2.2. Aita Lertxundi 42																																															2.797																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
3.1. E. Gudari 36-38-40-42																																															1.961																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
3.2. Kaia 5																																															1.026																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
3.3. Arrantzale Solar 1																																															402																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
3.4. Arrantzale Solar 2																																															222																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
3.5. Eusko Gudarien kalea, 26																																															234																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
4.1. A. Lertxundi 16																																															332																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
6.1. Erribera kalea			867																																												330																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
7.1. Kabi-alay / Uri berri																																															4.320																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
8.1. Munto P.2																																															2.076																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
12. Dike																																															20.169																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
13.1. Arocena Ceramica																																															9.965																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
14.1. Anibarko-Portua 37																																															158																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																												
17. Aizperro		79													77		4	76	356																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																								

Aurreko taulari begiratuta ikus daiteke, SIGPAC-eko hiru partzeletan kontzentratzen dela eragina. Garapen-eremuen azaleraren %20,19 (53.349 m²) 90004 partzelari eragiten dio, %18,96 (51.990 m²) 789 partzelari eta %17,16 (47.059 m²) 90023 partzelari.

Hurrengo taulan jasoko da HAPOn proposamen nagusiek partzela bakoitzari zenbateko inpaktua eragingo dion nekazaritza-erabileraren gainean, hau da, ez dira kontuan hartuko partzela bakoitzean eraldatutako lurzoruetan (hiri-lurra, errepideak, ez-produktiboa) eragindako azalerak, baizik eta nekazaritza erabileren gainean eragindakoak bakarrik.

7. Taula Orioko HAPOn proposamenen eragina partzela bakoitzari.

SIGPAC-eko partzelak	Partzelaren azalera Orioko udalerrian (m ²)	HAPOn proposamen nagusiek eragindako azalera (m ²)	Nekazaritza-erabileraren gaineko eragina (m ²)	Partzelaren azaleraren %
35	61	59	59	96,72
24	80	79	79	98,75
140	1.276	867	867	67,95
289	1.428	1.428	1.428	100,00
292	2.037	1.758	734	36,04
293	1.698	1.681	0	0,00
296	3.220	327	38	1,19
297	7.587	209	209	2,75
300	4.384	3.846	3.846	87,74
311	2.937	2.181	0	0,00
323	1.028	328	0	0,00
324	499	499	0	0,00
325	3.657	3.658	0	0,00
327	3.365	2.865	2.594	77,09
354	137.149	77	21	0,02
365	21.291	28	28	0,13
366	726	4	68	9,37
367	3.476	76	76	2,19
370	15.930	356	356	2,23
464	9.720	7.122	7.122	73,27
541	25.800	47	47	0,18
681	12.662	1.459	802	6,33
606	17.1071	485	485	0,28
609	20.933	20.365	9.291	44,38
623	1.733	1.719	1.719	99,21
787	19.682	19.660	19.659	99,88
788	14.768	14.740	5.943	40,24
789	52.212	51.990	51.981	99,56
829	2.885	1.071	1.071	37,12
830	1.594	1.067	1.067	66,94

882	7.434	140	140	1,88
889	25657	25.475	0	0,00
895	12.534	147	147	1,17
955	120	102	102	85,00
994	5.894	4.713	0	0,00
996	46	46	46	100,00
90000	69.387	633	0	0,00
90004	1.517.562	55.349	0	0,00
90006	351.727	226	0	0,00
90023	54.559	47.059	46.834	85,84
90024	11.922	20	0	0,00
90006	351.727	67	16	0,00
Guztira	2.953.456,51	274.028	156.875,415	5,31

Inpaktu handienak 90023 partzelak jasoko luke (4,7 ha, larreak eta basogintzako lurak), Aizperro eremuan, partzela osoaren azaleraren %86-i eraginez.

Bestalde 789 partzelaren gaineko eraginak handia ematen badu ere (5,2 ha; partzelaren %99,6), kontuan izan behar da mahastira bideratutako partzela hau Katxiña eremuaren barruan dagoela eta eremu honetako helburua txakolin ekoizpenarekin jarraitzea dela. Beraz, ez da aurreikusten partzela horretan efektu negatibo esanguratsurik eongo denik.

3.3 USTIATEGIEI LOTUTAKO ERAIKIN ETA AZPIEGITUREN GAIKOKO ERAGINA

Proposatutako garapenek, bai lurzoru urbanizaezinean, bai lurzoru urbanizagarriko sektore berrietan edo hiri-lurzoruko eremu berrietan, ez dute eraginik izango nekazaritzako ustategiei lotutako edozein eraikuntzetan edo azpiegituretan, Katxiña eremuan salbu.

Katxiña eremuaren inguruan ordea, aipatzekoa da, HAPOak dauden jarduerak finkatzeaz gain, txakolindeko eraikinak eta txakolin produkzioa handitzeko aukera ematen duela. Beraz, esan daiteke positiboki eragingo lioke HAPOren proposamenak eremu honetako ustategiari.

3.4 USTIATEGIAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN GAIKOKO ERAGINA

SIGPACen identifikatutako nekazaritza-lurzatien ehuneko handi baten erabilerak aldatzeak eta nekazaritzarako galtzeak ustategiaren bideragarritasun ekonomikoan eragin nabarmena izan dezakeela uste da.

Hurrengo taulan proposatutako garapenen ondorioz nekazaritza-erabileraren galera izango duten eta horrek lurzatien azalera osoaren %5 baino gehiagori eragin diezaioketen lurzatiak azalduko dira.

Gainerako lurzatiarentzat afekzio txikiagoa aurreikusten da, eta, beraz, ez da ulertzen lurzati horiei lotutako ustategien bideragarritasun ekonomikoan eraginik izan dezaketarik.

Aipatu behar da, azterketa honetan ez direla 18.1. Camping, 18.3. San Martin, 18.4. Katxiña eta 18.5. Sarikola eremuak sartu. Eremu horietan proposatzen diren garapenek ez baitituzte egun duten lurzoruaren okupazioa handituko edo ez beintzat lursailen bati modu esanguratsuan eragiteko moduan.

8. Taula HAPOren proposamenen eragina SIGPAC-eko lursailetan.

ID SIGPAC lursaila	Nekazaritza erabilerrari eragindako azalera (m ²)	Eragindako lursailaren azalera osoaren %	Proposatutako garapena	Erabilera nagusiak
24	79	% 98,75	Aizperro	Larreak
140	867	% 67,95	Erribera kalearen luzapena	Lur goldagarria
327	2.594	% 77,09	Hilerriaren handitzea (18.2. Cementerio)	Larreak
366	68	% 9,37	Aizperro	Basogintza
681	802	% 6,33	N-634 errepidearen saihasbidea	Zuhaixka-larreak
829	1.071	% 37,12	Erribera kalearen luzapena	Lur goldagarria, Fruitarbolak
830	1.067	% 66,94	Erribera kalearen luzapena	Lur goldagarria
955	102	% 85,00	Aizperro	Larreak
996	46	% 100,00	Aizperro	Basogintza
90023	46.834	% 85,84	Aizperro	Larreak, Basogintza

Ustiatgien bideragarritasun ekonomikoa haien azalerak eta erabilerek baldintzatzen dute. Larreak, batez ere, azientzarentzako bazka lortzeko erabiltzen dira, baita ganadua zuzenean larratzeko ere. Aurreikuspenen arabera, azalera zabalak eta produktibitate handia behar dira, etekin ekonomiko esanguratsua lortzeko.

Aurreko ataletan emandako informazioaren arabera, larre-erabilera duten 4,58 ha lurzoru ingururi eragingo die, batez ere lurzoru urbanizagarrian kokatutako Aizperro eremuak; eragindako azalerek udalerrian erabilera horretarako erabiltzen den azalera osoaren %2,65 hartzen dute; beraz, galera ez da esanguratsua udal mailan, baina Aizperro eremuan 90023 partzelan gertatuko den galera dela eta, neurri konpentsatzaileak hartu beharko dira.

Bestalde, lur goldagarriak kontuan hartuta, labore-motak baldintzatzen du haien etekin ekonomikoa, eta, gainera, labore-mota horrek hartzen duen azalera. Beraz, lurzoruen erabilera-tipologia horretako azalera txikiei eragiten badie ere, haren eragina nabarmenagoa izan daiteke. Kasu honetan, lur goldagarrien 2.971 m² ingururi eragingo zaiola aurreikusten da, udalerri osoan SIGPAC aplikazioak identifikatutako %2,60. Hala ere, SIGPAC-eko 140 eta 830 partzelen azaleraren %60 baino gehiagori eragingo diola aurreikusten da, Erribera kaleko luzapenarekin galduko dena.

Gainerako nekazaritza-erabilerei dagokienez, HAPOn proposamenen inpaktuak baso-erabilera, fruitarbolak eta zuhaixka-larreak hartuko ditu eraginpean. Udalerri osoan aipatutako erabilerek duten azalera kontuan hartuta, eragina oso txikia izango da kasu gehienetan, %0,03 fruitarboletan, eta %5,37 zuhaixka-larreetan. Basogintzako lurretan ordea, eragina zertxobait handiagoa izango da, %10,53.

Horrez gain, proposatutako garapenek eragin lezaketen Nekazaritzako Lan Unitateen galera kalkulatu da. Nekazaritzako Lan Unitatea (NLU) urtebetez nekazaritza-jardueran lanaldi osoan aritzen den pertsona batek egindako lana da, eta kalkulua egiteko, ustiatgira bideratutako lursailaren azalera eta ustiatgi mota hartzen dira kontuan, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko

martxoaren 31ko Aginduekin bat etorritik. Agindu horren bidez, laboreen marjina gordinak eta nekazaritza-unitateen modulu objektiboak (Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-unitateak) finkatzen dira.

2016ko martxoaren 31ko Agindu horren eta SIGPACen identifikatutako erabilaren arabera, honako NLUak esleitzen zaie:

- Larreei 0,0125 NLU/ha.
- Lur goldagarrietan 0,20 NLU/ha
NLUak aldatu egiten dira landutako espezieen arabera (ale-zerealak, giza kontsumorako tuberkuluak, bazka-laboreak, barazkiak, etab.). Kontuan hartuta labore mota horiek urtaro ezberdinetakoak direla, urtero alda daitezke, eta aldakortasun handia dago lurzatietan landatutako espezieen artean. Kasu honetan, lur goldagarriei 0,20 NLU/ha-ko balioa esleitzea erabaki da, labore-lurretan laborantza estentsiboko barazkientzat identifikatutako batez besteko balioari dagokiona, 2016ko martxoaren 31ko Aginduen arabera.
- Frutarbolei 0,25 NLU/ha-ko batez beste.
- Basogintzako eremuei 0,014 NLU/ha -ko batez beste.

Datu horiekin, eta proposatutako garapenak eragina izan lezaketen azalerak kontuan hartuta, taula honetan laburbiltzen dira proposatutako garapenak eragin liezazkiekeen NLUak:

9. Taula HAPOren proposamenen eraginez galdu daitezkeen Nekazaritza Lan Unitateak (NLU)

Nekazaritza Lan Unitateak (NLU)					
Lurralde-eremuak	Basogintza	Fruitarbola k	Larreak	Zuhaixka- larreak	Lur goldagarr a
Hiri-garapenak (Erribera kalearen luzapena eta Aizperro)	0,0167	0,0023	0,0421	0,0026	0,0590
Lurzoru urbanizaezineko proposamenak (hilerria handitzea, N-634 errepidearen saihesbidea)	-	-	0,0032	0,0010	-
GUZTIRA	0,0167	0,0023	0,0453	0,0036	0,0590

Ikus daitekeenez, oro har, ukitutako ekoizpen-lursailek NLU batetik beherako balioak dituzte nabarmen. Nahiz eta balio horiek gorabeherak izan ditzaketen lursailetan egiten den ustiapen-mota zehatzaren arabera, oro har, ez da uste erabilera-aldaketak eragin nabarmenik izango duenik nekazaritza-jardueran eta horien bideragarritasun ekonomikoan.

Beraz, jasotako informazioaren arabera, nekazaritzako ustategiek kudeatutako azalaren murrizketak ez du bideragarritasun ekonomikoa baldintzatzeko adinako garrantzi esanguratsurik.

Hala ere, beharrezkoa izango da neurri babesle eta zuzentzaileak ezartzea nekazaritza-lurren okupazioa eta artifizializazioa mugatzeko, bereziki balio estrategiko handiko lursailetan, bai eta horiek nabarmen murriztea eta identifikatutako nekazaritza-ustategiei eragin diezaieketen konpentsazio-neurriak ere.

4 NEURRIZUZENTZAILEAK

Jarraian, oro har, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri batzuk deskribatzen dira. Neurri horiek, hala badagokio, aplikatu beharko dira, proposatutako garapenek sor ditzaketen eragin negatiboak murrizteko. Neurri horiek Ingurumen Azterketa Estrategikoan sartzen dira.

4.1 LURREN GAINEKO EZAGUTZAN SAKONTZEA

- Udalerrian dauden lurzoruen ahalmen agrologikoa eta lurzoru moten inguruko ezagutza sakontzea, Euskadiko lurzoru babesteko 2030rako estrategiaren bidetik, onuragarria izateaz gain bermea ere izan daiteke nekazaritzarako bideratutako lurren babeserako

4.2 NEKAZARITZA-LURRA ETA NEKAZARITZA-USTIATEGIAK BABESTEA

- Antolamendu xehakatuak Nekazaritza eta Basogintzaren LAPak eta HAPO berak identifikatutako balio agrologiko handiko lurzoruetan izan daitezkeen eraginak saihestu edo mugatu beharko ditu, bai antolamendua zehaztean, bai obren fasean zehar.
- Eragin handiena duten ustiatagietarako, ekonomikoki konpentsatzeko edo nekazaritza-lurzati berriak edukitzeko aukera baloratuko da.

4.3 LURZORUEN BABESA OBRA FASEAN

- Proposatutako jarduketan zuinketa kontrolatu beharko da, okupatutako eremuak behar-beharrezkoa dena gainditzen ez duela bermatzeko, bai obra bera garatzeko, bai lurra aldi baterako metatzeko, obrarako sarbideak eta obra aldi baterako okupatzeko plataformak, makineriaren parkea barne.
- Obrak hasi aurretik, zehaztasunez balizatu dira bai obren okupazio-azalera, bai pilaketak, makineria-parkea, obra-instalazioak eta abar ezartzeko aldi baterako okupazio-eremuak.
- Makineria-parkeak, obrako instalazio osagarriak eta obrarako materialak biltzeko eremuak aukeratzeko orduan, irizpide teknikoak eta ekonomikoak, ekologikoak eta nekazaritzakoak hartuko dira kontuan. Horregatik, esku hartzeko eremutik kanpo makina-parkea instalatzea saihestuko da.
- Pilaketa-eremuak eta instalazio osagarriak, hala nola makina-parkea, azalera iragazgaitz batean kokatuko dira. Azalera horrek areka perimetral bat izango du, urak hidrokarburo-iragazki batera bideratzeko, eta, edonola ere, identifikatutako isurketetatik urrun.
- Ez da makineriarik mantenduko iragazgaiztu gabeko eremuetan. Nolanahi ere, obran material xurgatzaileak egongo dira (sepiolita, manta xurgatzaileak, eta abar), ustekabeko isurketen kasuan erabiltzeko. Isurketak lursailari eragiten badio, baimendutako kudeatzaile batek kudeatuko ditu isurketa eta lur inpregnatuak biltzeko erabilitako material xurgatzaileak.
- Hormigoi-lanak hasi aurretik, HDPez iragazgaiztutako putzuak daudela egiaztatuko da, mahukak garbitzetik datorren ura bakarrik jasotzeko, eta upelak ezin izango dira garbitu. Lanek irauten duten bitartean, putzu horien funtzionaltasuna eta erabilera egiaztatuko da, eta metatutako hormigoi-

hondarrak behar bezala kendu eta kudeatzen direla putzu horiek beteta daudenean. Zangak obraren afekzio-mugen barruan kokatuko dira beti, eta behar bezala mantenduko dira eraginkorrak direla bermatzeko (hormigoi-hondarrak aldian behin kentzea).

- Ez da lur-pilaketarik egingo arraste edo jariatze bidez ibilguei solidoak emateagatik erasan daitekeen lekuetan.

4.4 KONPENTSAZIO-NEURRIAK

- Antolamendu berriak horretarako aukera ematen duen lursailetan, lehendik dauden nekazaritza-jarduerak mantentzea sustatuko da.
- Ekonomikoki konpentsatzea baloratuko da.

5 NEKAZARITZAREN ARLOKO ERAGINARI BURUZKO ONDORIOAK

Egindako analisiaren arabera, nekazaritzaren sektoreari eragiten zaion inpaktua bereziki obra-fasean gertatuko da, eta ustiapen fasean mantenduko. Inpaktua negatiboa, zuzena, jarraitua, sinplea, iraunkorra, itzulezina eta berreskurazina da.

Lurzoru urbanizaezinean proposatutako garapenek nahiz hiri garapen berriek eragin lezaketen landa lurren azaleraren galera globala kontuan hartuta, eragin hori ez da oso esanguratsua izango.

Nekazaritza eta Basogintzaren LAParen arabera, ukituko litzatekeen balio agrologiko handiko lurzoruen azalera 7.945 m² ingurukoa izango litzateke (0,79 ha), hau da, Orion LAP-k identifikatutako Balio Estrategiko Handiko (BEH) lurzoru osoaren %1,36 inguru. Eragindako azalera ez da oso handia. Balio estrategiko altuko lur horiei Erribera kalearen luzapena proposamenak (3.344 m²), San Martin eremuak (1.628 m²) eta Sarikolak (2.973 m²) eragiten die. Aipatzekoa da errealitatean inpaktua txikiagoa izango dela, San Martin eremuan ez baita garapen berririk onartzen eta Sarikola egun dauden eraikinak zaharberritzen dira soilik.

Bestetik, HAPO berak garrantzi handia eman dio balio handiko lurak babesteari eta mantentzeari. Lehenago aipatu den moduan, Oria erriberako ibaiertzeetan eta inguruko muino eta hegalean 49,6 ha kalifikatu dira "Balio estrategiko handiko eremuetan, lur ez urbanizagarriaren %5,4 eta landa lurren % 5,6.

Beraz, nekazaritzaren sektore-eraginaren gaineko inpaktua neurrizkotzat jotzen da neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile gehigarriak aplikatuz, inpaktu horren maila are gehiago murriztuko dutenak.

Oiartzunen, 2024ko abenduan

Sin.:




Sinadura: Tomás Aranburu Calafel
Nekazaritza-ingenieri Teknikoa



Sinadura: Alexandra Egunez Zalakain
Biologian graduduna eta Biodibertsitate,
Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioan
Masterra

I. eranskina. Planoak

Nekazaritzaren gaineko eragina		
Plano zk.	Izenburua	Eskala
1	LAPeko kategorien gaineko eragina	1: 17.000 DIN A3
2	SIGPAC erabilerak	1: 17.000 DIN A3



1. LA Peko kategorien gaineko eragina

Afección a categorías del PTS

Legenda / Leyenda

-  Hiri-garapenak proposatzen diren eremuak eta azpieremuak / Ámbitos y subámbitos propuestos
-  Lurzoru urbanizaezineko eremuak / Ámbitos en suelo no urbanizable
- Nekazaritza eta Basogintzako LA Peko antolamendu kategoriak
-  Basoa / Forestal
-  Balio Estrategiko Altua / Alto Valor Estratégico
-  Trantsiziozko Landa Paisaia / Paisaje Rural de




Orioko
Hiri Antolamentuko Plan Orokorra
Plan General de Ordenación Urbana
de Orio

Nekazaritzako eraginei buruzko txostena
Informe de impactos agrarios

2024ko abendua
diciembre 2024


Egileak
Autores

A3 E:1:17.000 SCR: UTM - ETRS89/30N



Legenda / Leyenda

-  Lurzoru urbanizaezineko eremuak / Ámbitos en suelo no urbanizable
-  Hiri-garapenak proposatzen diren eremuak eta azpieremuak / Ámbitos y subámbitos propuestos para acoger desarrollos urbanos
-  AG Ur-ibilguak / Cauces
-  IV Negutegi laborea / Cultivo en invernadero
-  TH Baratzeak / Huertas
-  TA Lur goldagarria / Tierra arable
-  FY Fruitarbolak / Frutales
-  PS Larreak / Pastizal
-  PR zuhaixka-larrea / Pasto arbustivo
-  PA zuhaitz-larrea / Pasto arbolado
-  FO Basogintza / Forestal
-  VI Mahastia / Viñedo
-  IM Ez produktiboa / Improductivo
-  ED Eraikuntza / Construcción
-  ZU Hiri-lurra / Zona urbana
-  CA Errepideak / Viales



Orioko
Hiri Antolamentuko Plan Orokorra
Plan General de Ordenación Urbana
de Orio

Nekazaritzako eraginei buruzko txostena
Informe de impactos agrarios